

HITZ BITAN

MAIDER TELLERIA BELAR HOCKEYKO JOKALARIA

«Belar hockeyarekin gozatzeko hasiko naiz jokatzan berriro»

Andoni Urbistondo | DONOSTIA

Sydneyko Olinpiar Jokoen ostean atsedena hartzea erabaki zuen Maider Telleria donostiarrak. Ez zen gogotsu beste behin goi mailako belar hockeyaren urteroko egutegi gogorra jasateko. Orain, hiruzpalau hilabeteren ostean, berriro jokatzan hasia erabaki du.

■ **Ohorezko Mailan 10 urtez jokatu ostean atsedena hartzea erabaki zenuen. Zergatik?**

Urte osoan apenas nuelako atsedetik. Niretzat ez zegoen udarik, ez Aste Santuko oporrik. Asteburu asko bidaiatzen eta etxetik urrun igaro behar nituen. Urte osoan belar hoc-

keyan pentsatzen. Lasaitasun pixka bat nahi nuen.

■ **Tarte horren ondoren, berriro jokatzan hasia erabaki duzu.**

Bai, baina Lehen Mailan. Ikastola bukatu nueneko taldean hasiko naiz, Lagunak taldean. Ez du konpromiso handirik eskatzen, egutegia ez da Ohorezko Mailan bezain gogorra eta belar-hockeyarekin gozatzeko aukera emango dit.

■ **Tarteko epea izan daiteke berriro Ohorezko Mailan jokatzeko bidean?**

Tira, gustura banago, agian bai. Hausnarketa sakona behar harko lukeen erabakia litzateke hori.

■ **1999-2000ko denboraldian jokalaria eta entrena-**



GARI GARAIALDE

tzaile izan zinen aldi berean, Santanderren (Espainia). Nolako esperientzia izan zen?

Oro har, urte polita izan zen. Haiek gogo eta ilusio handia jarri zuten. Entrenatzaile jarduna oso gogorra dela ziurtatu ahal izan nuen. Minduta ere izan nintzen, jokatu ezinik, eta hori ere gogorra izan zen.

■ **Hiru Olinpiar Jokoen eta Europako hainbat txapelketatan aritu zara. Oroitzapen mordoa izango duzu, ezta?**

Bai, asko. Bartzelonan, Atlantik eta Sydneyn izan naiz, eta aukera hori jende gutxi edukitzen du.

■ **Orain arteko kirol ibilera-ko oroitzapen onena?**

ATENASKO JOKOAK

«Oso urrun ikusten dut 2004. urtea. Bizitzak buelta asko ematen ditu»

Bartzelonan, Espainiako selekzioarekin lortu nuen urrezko domina. Alemaniaren aurka jokatu genuen finala oso lehiatua izan zen, luzapena eta guzti izan zen, baina merezi izan zuen, zalantzarik ez.

■ **Eta txarrena?**

Lesioak eta Atlantikoko porrota. Olinpiar txapelketan ginen, eta berriro titulua irabazteko gai ginela esan zuten. Belar-hockeya, ostera, ez da profesionala, eta dezenteko kolpea hartu genuen.

■ **27 urte dituzu. Atenasko Olinpiar Jokoen parte hartzeko asmorik bai?**

Une honetan oso urrun ikusten dut 2004. urtea. Bizitzak buelta asko ematen ditu, eta aukera horretan pentsatu ere ez dut egin.

HITZ ETA PITZ



PETE SAMPRAS

(Tenislaria)

«On egin dit ezkontzak eta egunero ohe berean jaikitzeak»

PELE

(Futbolari ohia)

«Brasilgo futbol arduradunen gaitasun ezak eragiten ditu istripuak»

FERNANDO GOÑI

(Aspeko pilotaria)

«Pilotak errebotera bidaltzea baino gehiago egin behar du atzelariak»

IKER CASILLAS

(Real Madrilko atezaina)

«19 urte ditut, ikasten ari naiz. Ezin naiz munduko onena izan»

MENDIA. 2002. urteko udaberrian hasiko omen dira hotela altxatzeko lanak



EGUNKARIA

Hotel bat eraiki nahi dute Everest mendiaren magalean

Txinako Gobernuak baimena eman du Everest mendiaren magalean, Rongbuk glaziarrean, hotel bat eraikitzen hasteko. Russell Brice mendi gidari ospetsua da eraikinaren sustatzaileetako bat.

5.000 metrora altxatzeko omen dute, eta 52 logela izango ditu. Inguruko monasterio budistako monjeen oniritzia ere badu egitasmoak, baina mendizale ugari aurka mintzatu dira.

TXAKUR LERAK

Gaur aurkeztuko dute 2001eko Pirena, Iruñean

Hil honen 21ean hasi eta otsailaren 3an amaituko da aurtengo Pirena txakur leren lasterketa. Antolatzaileek gaur egingo dute aurkezpena, Iruñean, eta hilaren 20an erakustaldia egingo dute txakur lerekin Iruñeko Gotorlekuan. La Partacuan (Huesca) hasi eta La Molinán (Girona) amaituko da Pirena. Hamasei herrialdeetako 60 talde abiatuko dira, eta 650 txakur inguru orotara. Aragoi, Katalunia, Andorra eta Frantziako lurraldeak zeharkatuko ditu Pirenak. Laurehun kilometro baino gehiago egin behar harko dituzte musher-ek.

BOXEOA

Evander Holyfield John Ruizen aurka borrokatuko da berriro

Munduko Boxeo Elkarteko (MBA) pisu astunetako erregetza jokoan jarriko du Evander Holyfield boxeolari estatubatuarra martxoaren 3an, Las Vegasen. Puerto Ricoko John Ruiz izango du aurkari berriz Holyfieldek. Zazpi hilabete eskaseta bi boxeolari horien arteko bigarren borroka izango da hau. Lehen borrokan, Evander Holyfieldek garaipen polemikoa lortu zuen. 37 garaipen eta porrot bakarra da Holyfielden marka.